


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**USANDIZAGA 19**

Egilea eta data: Francisco Urcola; 1925

Deskribapena

Kantoiko eraikina, behe oina eta jatorrizko sei goi oin dituen, azkena atzeraemana, begiratokien luzapen diren galeriak izan ezik. Harlanduzko fatxada goi oinetan, kantoiko alakan hormigoizko begiratokia eta elementu moldekatuak dituena, eta begiratoki bikoitza Usandizaga kalera. Behe oina jatorriz kareharrizko kuxinduraz estalita dago. Proiektu komuna Usandizaga 17 eta Migel Imaz 8rekin.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokitu dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 6. goi oina, begiratokien gaineko galeriak izan ezik.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrek: harlanduzko elementuak; elementu moldekatuak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotutakoak, behe oineko fatxadaren konfigurazio bateratuarekin lotutakoak barne.